



Bere dimentsio eta ikusgarritasunagatik, Nafarroako arroilen erregina da Arbaiun; baina helezinetariko ere bai. Zaraitzu ibaiak 6km-tan zehar zartaturiko 200 metrotako pareta bertikalek osatzen dute zintzurra. Bere hedadura zabalak eta erliebe konplexuak mikroklima ezberdinen agerpena baimendu du, zeintzutan landaretza ugari eta nahastua mantentzea posible izan den. Modu honetan landaretza mediterranearra aurki daiteke, hala nola, artea, abaritza edota erkametza. Baina baita eremu hezeagoetako espezieren bat ere, pagoa, ezkia eta hurritza, kasu.

Babesturiko Natura-Erreserba da eta bere kontserbazio maila altuari esker, animalia espezie anitzen bizilekua da Arbaiun. Bestek beste, hegazti harrapakari handiak dira nagusi, haiek egin baitute ezagun lurralde hau: sai arrea, muduko koloniarik handienetarikoa dago hemen (250 bikote), ugatz bakartia, arrano beltza, sai zuria edota hontz handia topa daitezke Arbaiungo zeru eta erlaitzetan.

Arroila bisitatzeko aukera ezberdinak daude. Hauen artean, Arbaiuneko panoramika ezinhobeaz goza daiteke Isoko behatokian. Bestela, Usun herriraino (Erromantzatua) gerturatzea posible da eta kotxea bertan utzita, arroilaren amaierako irekieraraino doan bidea hartu. Bertan, San Pedro basilizaraino doan ibilalditxo egin daiteke, Nafarroan dokumentaturiko lehenengo monasterioraino, hain zuzen ere.

AYÚDANOS A CONSERVAR LAS FOCES

- Lleve la basura a los contenedores.
- La circulación de vehículos a motor por el interior de la Foz de Lumbier no está permitida.
- Respete la fauna, la vegetación y, en general, todo el medionatural.
- No moleste a las aves con gritos y ruidos.
- No dejar objetos de valor a la vista en los vehículos.
- Extreme la precaución en acantilados y túneles.
- No está permitida la acampada (dirigirse al campings de la zona), ni hacer fuego.
- La Foz cuenta con guarderío. Colabora con ellos.

